

JUSTIZIA FEMINISTA EZTABAIDAGAI ZENBAIT APUNTE

Foro Sozial Iraunkorreko Genero Lantaldea eta
Justizia Feminista Mintegia¹

Bilbo, 2019/06/01



¹ Justizia Feminista Mintegian 18-20 emakume bildu gara, hainbat elkarte feministetan gabiltzanak edo Euskal Herriko gatazka armatuaren ondorioak landu eta bakearen eraikuntzan dabiltzan eragileetako partaideak, eta eremu ezberdinetan eragiten ari garenak: herri-mugimenduetan, lankidetzan, zuzenbidean...

AURKIBIDEA

1.- Eztabaidaren ibilbidea eta gaiak

- 1.1.- Nondik gatozen
- 1.2.- Justizia feminista kontzeptuaz
- 1.3.- Justiziaren definizioa
- 1.4.- Giza-eskubideen subjektuen definizioan dauden bazterketak
- 1.5.- Testuingurua aintzat hartzearen garrantzia
- 1.6.- Justiziaren dimentsio kolektiboa eta barrura begiratzeko beharra
- 1.7.- Justiziaren subjektuak eta tresnak
- 1.8.- Arlo sinbolikoa eta (gure burua) kontatzeko eskubidea
- 1.9.- Gatazkak, pluralean, aitortzea
- 1.10.- Elkarrizketa, negoziazioa eta amore-ematea
- 1.11.- Ekitatea erantzukizunaren aurrean eta zigorraren logika
- 1.12.- “Biktima tutelatua” eta “biktima eragile”-ren arteko continuum
- 1.13.- Bestetasunaren eraikuntza
- 1.14.- Erreparazioa eta osatzea

2.- Eztabaidarako galderak

3.- Mintegietan erabilitako bibliografia

1. EZTABAIDAREN IBILBIDEA ETA GAIAK

1.1. Nondik gatozen

2017an ekin genion Foro Sozial Iraunkorrean genero ikuspegitik eragiteko asmoz sortutako lantaldeari³. Orduetik hona, lan dezente egin dugu, baina batez ere, 2017ko urriaren 8ko “Nik sinisten dizut. Emakumeon egia aitortu” ekimena mugarri bilakatu zen bakegintzaren eraikuntza kolektiboan feminismotik eragin nahi dugunontzat. Abiapuntuko ekimen horretatik tiraka, ondoko gogoetari bueltaka hasi ginen: **Zer da justizia guretzat? Zein da eta nolakoa izan beharko lukete behar eta desio dugun justiziaren kontzeptua eta ereduak? Nondik has gaitezke berauek eraikitzen?**

Galdera potoloegiak nolana izateko erantzun ahal izateko. Are gehiago, erantzun azkarrak eta borobilak erditzea ez da desiragarria. Hala ere, ekimen eta lan esparru ezberdinetan, zuzenean ala zeharka, galdera horiek marrazten ari direnaren sentsazioa geneukan. Argi dago emakumeon aurkako indarkeria kasuetan izan zein euskal gatazka armatuaren ondorioen konponbide prozesuan, egun indarrean den justizia ulertzeko eta eraikitzeko ereduak ez gaituztela asetzen. Ondorioz, gurean, egia, aitortza, biktimak, birgizarteratzea, erreparazioa, edota bizi izan duguna ez errepikatzen bermeak bezalako terminoak eta ideiak bolo-bolo dabilta.

Hori dela eta, 2019. urte hasieran, “Justizia Feminista Mintegia” deritzon gune eta prozesua zabaldu genuen beste feministekin batera gogoeta egin ahal izateko, argi genuelako metodologiari dagokionez eta gogoeta espazio emankorra izateko, zenbat eta pertsona gehiagok parte hartu orduan eta prozesua aberatsagoa izango litzatekeela, eta horretarako baldintza zela eragile ezberdinekin elkarlanean aritzea eta pausoz pauso ekitea. Horrela, halako prozesu teoriko eta praktikoetan dabilzan feministei deia luzatu eta ondorengo eremuetako emakumeak batu ginen: mugimendu feministakoak, nazioarteko egoeraren ezagutza duten lankidetzak arloko elkarteetakoak, Euskal Herrian bakearen eraikuntzan eta mugimendu misto ezberdinetan daudenak eta baita biolentzia ezberdinak pairatu dituzten emakumeak ere. Beti gogoan sufrimendu gehien jasan dutenak eta jasaten ari direnak.

³ Foroko Genero Lantaldeko partaideok, 2006tik (Ahotsak inizatiba sortzen den urtea) hona, bakegintza eta elkarbizitzan feministek egindako ibilbidean sorturiko bestelako egitasmotan ere parte hartua dugu, hala nola, Ahotsak edo Emagune ekimenetan zein Bilgune Feministak edo Hegoa Institutuak bultzaturikoetan.

Izan ere, aurre-lanketari garrantzia berezia eman ez eta prozesu honi balio politikoa aitortuz heldu nahi dugu “Justizia Feminista Eztabaidagai” lelopean ekainaren lehen antolatu dugun jardunaldira. Horregatik, alde aurretik, hilabete hauetan egindako lana jasotzen duen dokumentu hau konpartitu nahi dugu zuekin. Gure asmoa ez da posizio eta definizio argiak eta finkoak sortzea, elkarrekin pentsatuz geure praktikak eta proposamenak aberastea baizik. Geure buruak interpelatzea gizartea interpelatzeko eta bide berriei ekiteko.

Zeintzuk dira geure buruari ipinitako hastapeneko helburuak?

- **Egungo ereduak, balioak eta tresnak birpentsatzea.**
- **Mundu mailan, gatazka armatuen konponbide prozesuetan zein mugimendu feministaren borroketan bilduriko esperientziak eta eskarmentua ezagutzea.**
- **Euskal Herrian eragile ezberdinen eskutik gai honen inguruan egindakoaz hausnartzea.**
- **Zoru komuna eraikitzeke aukerarik ba ote dugun baloratzea.**

Azken helburu horri lotuta eta ekainaren lehen jardunaldian ondorio partekatu batzuk osatzeko gai izanez gero, uste dugu lanketa honek, alde batetik, 2019ko azaroan, Durangon, ospatuko diren Euskal Herriko Topaketa Feministetan jarraipena izan dezakeela eta, bestetik, Foro Sozial Iraunkorarentzat eta bakegintza eta justizia arloan dauden eragile guztientzat ere baliagarria izan daitekeela.

Laburrera ekarrita, txosten hau otsailtik maiatzera bitartean osatu dugun Justizia Feminista Mintegi iraunkorren identifikatu ditugun gakoek eta auziek osatzen dute⁴. Baina horietan sartu aurretik, gai honi zein begiradatik ekin nahi diogun azaltzen duten puntuekin hasi nahi dugu.

1.2. Justizia Feminista kontzeptuaz

Hitzak berak eta horrela deitzeak buruhausteak eman dizkigu. Zeri deritzogu Justizia Feminista edo, hobe esanda, zeri deitu nahi diogu

⁴ Justiziaren eta feminismoaren arteko harremanez pentsatzeko egon daitezkeen gaiak eta ikuspegiak ordenatzeko asmoz, mintegiaren saio batera antropologia juridikoan aditua den Ignasi Terradas Saborit, Universitat de Barcelonako irakaslea gonbidatu genuen. Berak kultura artean eta historian izan diren eredu ezberdinez hitz egin zigun, feministentzat interesgarrienak izan daitezkeen gaiak aipatuz eta gurean nagusia den justizia penala zein beste hainbat kulturatako justizia bindikatorioa ere aintzat hartuz. Aldi berean, hilabete hauetan zenbait testu eztabaidatu ditugu (ikus « Mintegietan erabilitako bibliografia »). Dokumentu honetan plazaratzen ari garen ideiek Terradas-en hitzaldiaren edukien eta irakurketa horien inguruan izan ditugun eztabaidak dituzte oinarri.

Justizia Feminista, eta zergatik? Ziur aski izendapena bera gutxienekoa da, beste kasu batzuetan gertatu den moduan, historiak erabakiko baitu zein izango den irauten duen terminoa. Gure ustez, garrantzitsuena honakoa da: **Zer da aldarrikatu nahi duguna kontzeptu edo izendapen hori erabiltzean? Beraz, izenak baino horren definizioak kezkatzen gaitu.**

1.3. Justiziaren definizioaz

Bistan da Justizia mota bakarra ez dagoela, justizia nozio eta praxi ezberdinak baizik, berau definitzerakoan eraikitzen den posizio (ideologia, helburua, interesak, proiektu politikoa, lekua botere harremanetan...) adina. Egun mahai gainean dauden proposamenak horren adibide lirateke: Justizia bindikatiboa, punitiboa, errestauratiboa, transformatiboa edota trantsizionala. Beraz, guk geure justizia nozio propioa(k) zein den/diren definitu beharko genuke. Baina, horretarako, **pentsatu beharko genuke justiziaren helburua zein den guretzat.**

Halaber eraiki nahi dugun justiziaren eta biolentzia askotarikoa oinarrian duen egungo testuinguruaren arteko harremanak ere marraztu beharko genituzke, egungo beharrei erantzunez baina, aldi berean, eraiki nahi dugun beste justizia horren bidean urratsak emanez. Ideala zitekeen justiziaren ulerkerak eta ereduak bihurtzeko utzi beharrean, gaurdanik abiatzea eta gaur egungoa eraldatzea, posible dugun guztietan nahiko genukeen balizko eredu horren balioak eta praktikak entseatuz.

Gure aldetik, bi horien (ideala eta gaur egun jorratu beharrekoa) arteko sintesia bilatzea edo bi muturreko egoera horien arteko tentsioan aritzea proposatzen dugu, tentsio horrek etengabe eta baikorki interpelatuko baikaitu. Alegia, “printzipio handien” eztabaidari ihes egin gabe, baina eztabaida hori egiten dugun bitartean, bizitza atzamar artean doala begi bistatik galdu gabe.

Zentzu horretan, gure definizioa(k), ulerkerak eta praktikak borrokatu nahi ditugun dualismo ezberdinak ez berregiteko ahalegina egin beharko genuke (esate baterako, erruduna/biktima, zigorra-mendekua/birgizarteratzea...), baina era berean, sarri askotan, printzipio edo ideologiatik harago, gure erraiak mintzo eta kontraesanetan sartzen direla ere kontuan hartuz. **Elementu horien guztien arteko oreka-desoreketan egin beharko dugu bidea.**

1.4. Giza-eskubideen subjektuen definizioan dauden bazterketak

Feminismotik giza-eskubideen definizioari egindako kritiken abiapuntua Frantziako Iraultzan eta “Gizonaren eta Herritarraren eskubideen Adierazpenean” koka dezakegu. Adierazpen horrek emakumeak eta atzerritarrak bezalako subjektuen eskubideen diskriminazioa finkatu zuen. Horrek eragina izan du bai mendebaldeko justizia-sistemaren eraketan, bai giza-eskubideen ulerkeran. Teorikoki unibertsalak izan arren, praktikan giza-eskubideak baztertzailak dira. Horrela, emakumeek bigarren mailako hiritarrak bezala tratatuak izaten dira, atzerritarren gehiengoari hiritartasuna bera ere ukatzen zaion bitartean. **Historikoki, eta gaur egun arte, emakumeen eta atzerritarren giza-eskubideen murrizketak batera joan dira. Horregatik, bi subjektu hauen arteko aliantza estrategikotzat har dezakegu.**

1.5. Testuingurua aintzat hartzearen garrantzia

Ezin dugu sistema judiziala aldatzean pentsatu gizartea eraldatzeko beharra kontuan hartu gabe. Hau da, **gure jarduna bizi ditugun baldintza sozial, ekonomiko eta politikoen iraulketa oso baten testuinguruan kokatu behar dugu**, gizarte berdinzale bat helburu, gatazkak ekidin gabe eta politikan, hezkuntzan eta elkarbizitzan esfortzu guztiak eginez.

Era berean, **justiziaz gogoeta egiteko, aurrera doan begirada luzeaz bezainbeste atzera begirako azterketaz jardun behar dugu**. Hau da, egungo ereduaren bilakaera ulertzea, gaiari lotuta egon diren eztabaidak zein hika-mikak ezagutzea eta egungo argazkian integralki sakontzea halaberrezkotzat jotzen ditugu.

Aipatutakoa hobeto adierazteko ondoko adibideak argigarriak izan daitezke:

(1) Euskal Herriko mugimendu feministak sistema judizialarekiko izan duen harremana aztertzea beharrezkoa ikusten dugu, abolizionisten edota sistema penalaren kritikoen iritziak eta jardunak zein autodefentsa feminista bezalako egitasmoak analizatuz. Eta eremu horietan garai eta mugimenduaren belaunaldi ezberdinek (izan) duten eragina.

(2) Era berean, aberasgarria izan daiteke, bai Espainiako bai Frantziako estatuetan, euskal gatazka deiturikoaren testuinguruan garatuz joan diren bitarteko errepresiboek gaur egungo logika punitibistetan izandako eragina edota beste gatazka batzuetara transferitzen ari diren moduak aztertzea.

(3) Sistema penalarekiko konfiantzaren edo mesfidantzaren ibilbideak aztertzea (legitimaziorako ala deslegitimaziorako prozesuak) zein hortik kanpo bilatzen ziren eta diren praktika eta prozesuak ezagutzea.

Bestalde, **gure begirada eta jarduna lekutzeari ere garrantzitsua irizten diogu**, gure testuingurutik eta testuingururako aritzea, eta ahal den heinean, geure gizartea osatzen duten komunitate ezberdinak aintzat hartuta: generoa, adina, klasea, jatorria, sexualitatea, nazio-identitatea, hizkuntza eta beste makina bat faktoreren arabera ezberdintzen gaituen gizartea baikara. Eta hemen galdera bat sortzen zaigu: emakumeok, egungo justizia ereduarekiko asetasun falta abiapuntu komuna dugun arren, behar unibertsalak ditugula esan dezakegu? Beharrak garai, leku eta gatazken arabera testuinguratzeak emaitza ezberdinak ematen eta emango dizkigulakoan gaude. Adibide bat ematearren, beste herrialde batean emakumeek euren burua osatzeko darabiltzaten esperientziak edo jarduerak egokitu gabe nonahi aplikagarriak al dira?

1.6. Justiziaren dimentsio kolektiboa eta barrura begiratzeko beharra

Historian zehar eta beste kulturetan barna egon den justizia ulertzeko eta eraikitzeko moduak aztertuz gero, **badago eredu ezberdin horien izaeran eragiten eta bereizten duen kontu nagusi bat: justizia bera eta prozesua norbanakoengan kokatua egotea ala kolektibo gisa ulertzea**. Esate baterako, egungo kriminologia klasikoak norbanakoa gizartetik “bereizten” du, botere egitura eta baldintzak bazter utziz eta arazoa indibidualizatuz. Aldiz, bindikatorioa deritzon justizia elkartasunean oinarritzen da, eta elkartasuna halabeharrez kolektiboa da. Horrela, eredu horretan, prozesu osoan, gatazka edo arazoa aztertzean, kudeatzean eta erreparatzean, dimentsio kolektibotik jarduten da, prozesu kolektibo gisa ulertuz. Gainera, arreta behinena ofendituari jartzen zaio, ez ofentsa egin duenari, eta helburu nagusia ez da zigorra jartzea, baizik eta ofenditua babestea eta gertatu dena erreparatzea, horretarako, kontsentsuz ezarriak diren bideak erabiliz. Alabaina, gure sisteman gertatzen denaren kontra, ofentsa jasan duenak sentitu egingo du komunitate osoa berarekin dagoela.

Sistema bindikatorioak dituen abantailei eta arriskuei⁵, zein kriminologo eta legelari feministek gurean dagoen indibidualismoari egiten dioten kritikari erreparatuta, esan dezakegu feminismoarentzat ezinbestekoa dela

⁵ Justizia bindikatorioa duten gizarteetan badaude gertatu dena erreparatzeko espezializatzen diren pertsonak (adibidez, komunitateko pertsona zaharren bat). Baina horien papera ahalik eta bidezkoena izateko komunitate barruan dauden sektoreek maila berean egon behar dute, botere-hierarkiak txikiak izanik. Beraz, zenbat eta horizontalagoa izan gizartea orduan eta eraginkorragoa izango da justizia.

justiziaren dimentsio kolektiboa jorratzea eta bultzatzea, komunitateak duen garrantzia eta sektore ezberdinen arteko elkarrizketaren balioa nabarmentzea. Hori bai, komunitatea idealizatu gabe, jakitun baikara bere baitan badaudela ezberdintasunak eta gatazkak.

Horretarako, funtsezkoa ikusten dugu pentsatzea bai justizia sisteman zer nolako neurriak eta prozesuak bultzatu behar ditugun komunitatetik, bai nola bermatu komunitatearen formazioa eta ahalduntzea, inpunitatearen aurkako borroak, azken batean, komunitatearen entzuketa ariketa aktiboa beregain darama eta. **Horregatik dira hain inportanteak kanpora eta barrura begirako prozesu indibidual eta kolektiboak:** erruarekin, minarekin, diferentzietekin edota gatazkekin dugun harremana landuz eta prozesuak ebaluatzeko eta abiatzeko tresnak sortuz.

Hala ere, orain arte, batez ere, kanpora begirako prozesuez aritu bagara, gure ustez, barrura begira ere jarri behar gara feministok, gure jardunak bi dimentsio aldiberekoak baititu: kanporakoa eta barrurakoa. Gizartea eta komunitatea nola formatu/ahaldundu eta indibidualismoa nola neutralizatu lortze aldera, norbanako moduan eta kolektiboki ere gogoeta eta lanketa egin behar dugu, norberaren kontraesanak azaleratuz eta besteok (edo norbera) epaitu edota erruaren eta zigorraren logika erein ordez, prozesuen eta bizipenen ulerpenari garrantzi osoa emanez eta botere-harremanetan dugun posizio anizkoitza aintzat hartuz.

1.7. Justiziaren subjektuak eta tresnak

Justizia, banatzen den zerbait baino, eraikitzen den zerbait dela uste badugu, subjektu ezberdinen parte hartzea eta tresna ezberdinak (materialak, kulturalak...) izatea eskatzen dituen prozesua dela onartuko dugu. Justizia, erakundeen logikatik aztertuta, justizia “emateari” edo banatzeari lotuta dago, non pertsona gutxi batzuek har dezaketen parte. Aitzitik, justizia, erakundeetatik kanpo kokatzen badugu, pertsona guztiek parte har dezakegun espazioez hausnartu dezakegu.

Justizia instituzionalaren eremuan (zibil-penal sistema), “errudunaren” zigorra dago erdigunean, erantzukizun kolektiboa eta biktima babestea eta berarekiko elkartasuna desagertu egiten dira, eta zigorrak –askotan gehiegizkoak- ez dira birgizarteratzaileak. Sistema berak, emaitzekin asegabe, kasu batzuetan, tresna berriak sortu ditu, hala nola, justizia errestituatiboa, bereziki zigor-jardueran eta zigorra gauzatzeko eran biktimari garrantzia gehiago emateko.

Justizia instituzionaletik harago, gizarteak, orokorrean, eta, bereziki, hurbilena den komunitateak jokatu behar duten paperaz sakondu eta bultzatu behar dugu. Hain zuzen, komunitate mailan posible izango dugu elkartasun eta erantzukizun kolektiboetan oinarrituriko beste logika batzuk birpentsatzea eta garatzea, eta biktima zein biktimarioa prozesuaren subjektu aktibo bihurtzea. **Eginkizun honetan herri- eta gizarte-mugimendu ezberdinen parte-hartzea ezinbestekoa da.**

1.8. Arlo sinbolikoa eta (gure burua) kontatzeko eskubidea

Legislazio formala eta justizia-sistema ez dira gai patriarkatua desartikulatzeko, patriarkatuak berak justizia-administratzaileen kontzientzia –emakumeena barne– eta erasotzaileen kontzientzia era berean zeharkatzen baititu. Hori azaldu dezakeen faktore bat da Estatu modernoa sinbolikoki maskulinoa dela, eta horrek posizio maskulinoak arlo publikoan eta kasu honetan legislazioan eta nagusia den diskurtso juridikoan duen nagusikeria indartzen duela. Horregatik, **zuzenbide arloan ematen den borroka sinbolikoan ere bada, funtsean subjektu kolektibo batek diskurtso juridikoan existitzeko eta bere burua kontatzeko duen eskubidearen aldeko borroka.**

Feminismoarentzat, legislazioa sinbolikoki eta materialki eraginkorra izango da, pertsonen kontzientzia interpelatzeko eta eraldatzeko, eta baita subjektu diskriminatuak eta beren eskakizunak izendatzeko, ikusarazteko eta erantzuna emateko ere baliagarria den heinean. **Eremu diskurtsiboak duen garrantziak, justizia arloan erabiltzen eta erabili nahi dugun hizkuntza kontuan hartzea dakar**, esate baterako, logika binario-dualistak gainditu ahal izateko.

1.9. Gatazkak, pluralean, aitortzea

Edozein justiziaren oinarria gatazkak (ez gatazka bakarra) daudela aitortzea izan beharko litzateke. Horretan, emakumeen mugimenduek, historian zehar, beti azpimarratu eta ikusarazi ditu gizarteak ikusi ez, ukatu eta, are gehiago, izendatzen ere uzten ez dituen gatazkak. Gure testuinguruan egon badaude gatazka-egoera ezberdinak, onartzen ditugunak eta interpelaten gaituztenak, hala nola, emakumeekin espezifikoki zerikusia dutenak eta/edo euskal gatazkari loturikoak.

Horiekiko egiten dugun apustua bikoitza da:

(1) Alde batetik, euskal mugimendu feministak azken urteotan hasitako bidearekin bat egiten dugu. **Bide horrek emakumeok jasandako biolentzia mota guztiak maila berean kokatzen ditu** (esate baterako, “Feministok Prest. 11 eraso, 12 erantzun. Zuen biolentziek erantzuna jasoko dute” edo

bakegintza arloan sortutako emakume-plataforma ezberdinen lana, “Nik sinisten dizut. Emakumeen egia aitortu” ekitaldian ikustarazi zena).

(2) Bestalde, uste dugu feminismoak justizia arloan egindako eztabaidak eta hausnarketak lagungarri zaizkigula gatazka ezberdinak aztertzerako orduan, puntu komunak eta sinergiak bilatzeko, eta baita, “bakegintzaren” gaia agenda feministaren erdigunean kokatzeko. Horietaz gain, garrantzitsutzat jotzen dugu edozein motatako eraso bortitzaren aurrean egon daitezkeen erantzun anitzak kontuan hartzea. Aniztasun horren barruan bat egin dezakete inpunitatearen aurkako jarrerak eta punitibismoaren kontrakoak.

1.10. Elkarrizketa, negoziazioa eta amore-ematea

Gatazka bat konpontzeko beharrezkoak diren kontsentsua edo akordioa lortzeko tresnak, elkarrizketa eta negoziazioa direla dugu abiapuntu. Ildo horretan, **ez dago negoziazio prozesurik inplikaturiko aldeek zerbaitetan amore eman gabe.** Era horretan soilik da posible gatazka ondo konpontzea eta alde guztiak irabazten ateratzea.

Honen aurrean, ikus dezakegu, alde batetik, gaur egun ez dagoela “modan” amore ematea, kontrakoa baino; bestetik, edozein negoziazio-motatan, normalean, gehien amore ematen **duen aldea gatazka konpontzeko interes handiena duena izaten da.** Emakumeen aurkako biolentziaren kasuan, **emakumeek, biolentzia amaitzeko interes handiagoa dugunez, gehiago amore ematen dute, baita eskubideetan ere.** Euskal gatazkan, Espainiako estatuak ez du gatazkaren ondorioak konpontzeko inolako interesik, eta euskal gizartea da amore ematen ari dena.

1.11. Ekitatea erantzukizunaren aurrean eta zigorraren logika

Sistema judizialean, erantzukizun-printzipioa ekitate-printzipioari gailentzen zaio; emakumeek justiziaren ideia eta praktikarekiko dugun esperientzian aldiz, ekitatea erantzukizunari gailendu ohi zaio. Ekitate-printzipioan, pertsona, lehenengoz, biktimatzat hartua izaten da, nahiz eta aldi berean legea ez betetzeagatik, erruduna ere izan (esate baterako, gose delako lapurretan dabilena edo pertsona migratzaileei/errefuxiatuei laguntza ematen diena, nahiz eta legeak hori zigortu...); hau da, zaugarriaren alde jotzen da, nahiz eta arrazoi (legala) ez izan. Erantzukizun-printzipioan ez da zaugarriaren alde jotzen, nahiz eta arrazoia izan, baizik eta, legearen araberrako erruduna bada, zigortzen da (esate baterako, oinezko batek kalea gaizki zeharkatu eta kotxe batek

harrapatu du; erruduna oinezkoa da, ez da kontuan hartzen kotxearen nagusitasunarekiko oinezkoek duten zaurgarritasuna).

Hausnarketa honek funtsezko bi gaietara garamatza: 1) **erantzukizunaren inguruko hausnarketa interesatzen zaigu, baina ez horrenbeste lege edo delituarekiko aurrean, baizik eta ekintzen eta egindako minarekiko. Hain zuzen ere berau erreparatzeari begira, eta ez bakarrik maila indibidualean, baizik eta ikuspegi kolektibo eta erantzunkidetzan oinarrituta; eta 2) **gizarte iruditegian eta praktikan horren finkatuta dagoen zigorraren logika kolokan jartzea eta eztabaidatzea interesatzen zaigu.** Gure inguruan, biktimaren indibidualizazioak eta isolamenduak, hau da, elkartasun eta babes sozial ezak pertsona zigor-sistemari iltze goriari bezala heltzea ekar dezake, eta zigor-logikek zein populismo punitiboak pisu handiagoa hartzea. Hortaz, biktimaren indibidualizazio eta isolamendu hori ekidin, zein komunitate eta gizarte mailako laguntza sare zabala ehuntzeak duen garrantzian berresten gara. Honek, zigor-logikatik beste logika-mota positiboago eta eraldatzaileagoetara oinez egiten lagundu diezaguke.**

1.12. “Biktima tutelatua” eta “biktima eragilea”-ren arteko continuum

Biktimizez hitz egiten dugunean, ezin dugu ondoko bereizketa dikotomikoa eta estatikoa egin: “biktima tutelatua” *versus* “biktima eragilea”. Egon badago bi jarreraren arteko continuum aldakorra. Gainera, identitate finko eta mugiezinak baino, bizitzan zehar aldatzen diren posizioak dira. Ildo horretatik, biktimaren esperientziaren inguruan ia eskusiboki eratutako “betirako biktima” *versus* beti ahaldunduta eta suspertzeko prest agertu behar duen “biktima eragilea” oposizioan gauzaturiko dikotomia apurtzea ezinbestekoa da.

Gaur egun, biolentzia matxistari dagokionez eraikitako biktimaren ereduak logika dikotomikoa indartzen du. Alde batetik, biktima moduan etiketatu eta eten gabe berbiktimizatzen duen biktima-eredua dago. Kasu honetan, biktimak izateko eta jarduteko patroi homogeneoa sortzen da, eta biktimak eragilea izatearen zantzurik erakutsiz gero, bere esperientzia kolokan jartzen da. Beste aldetik, badago beste biktima-eredu bat, zeinak mina gutxietsi, txikiagotu edo minari garrantzia kentzen dion eta egoera gainditzeko duen gaitasuna soilik jartzen den erdigunean. Bi patroi hauek egitura patriarkala erreproduzitu dezakete eta, praktikan, biktimak behar duen babesaren eta berau ahalduntzeko tresnak sortzearen artean dagoen tentsioa indartu.

1.13. Bestetasunaren eraikuntza

Menderatze-prozesuek gutxietsia eta kontrolatua izan behar duen “beste” berezitu baten eraikuntza behar dute. Patriarkatuak bestetasuna eraiki du

gizonezkoek hautemandako besteen ideiatik, kasu honetan, emakumeak eta baita atzerritarrak bezalako beste subjektuak ere. **Ildo horretatik, feminismoarentzat funtsezkoa da bestetasun hori deuseztatzea, “munstro”-aren ideia ere desegitea, eta “beste” berri batzuk ez sortzea, ezta feminizida edo erasotzaileen kasuan ere.**

1.14. Erreparazioa eta osatzea

Justiziaren inguruko hausnarketan, erreparazioa eta osatzea funtsezkoak dira. Hala ere, garrantzitsua da bi terminoak bereiztea eta osatzeari dagokionez, irakurketa feminista kritikoak kontuan hartzea. Irakurketa horiek biolentziaren biktima pertsona gaixotzat hartzeko arriskuaz ohartarazten dute. Garrantzitsua da biktima bakoitzak erreparazioaz eta osatzeaz zer ulertzen duen kontuan hartzea, oso esanahi ezberdinak hartuko baitituzte; biktima batentzat osatzeko lagungarria denak ez du zergatik horrela izan behar beste biktima batentzat. Horregatik **ondoko gaien inguruko elkarrizketa irekian eta etengabeko berrikusketan aritzea beharrezkoa dela deritzogu: ikuspegi feministatik erreparazioa eta osatzea nola ulertzen dugun, bi terminoen arteko loturak eta aldeak zeintzuk diren, eta kontzeptu horiek garatzeko nolako ekarpena egin dezakegun hausnartuz esate baterako. Ildo honetatik, funtsezko iruditzen zaigu erreparazioak eta osatzeak ezinbesteko **dimentsio kolektiboa** dutela azpimarratzea.**

2. EZTABAIDARAKO GALDERAK

- Zer iritzi duzu/Nola sentitzen zara gako hauekin?
- Zeinek interpelatzen zaitu gehien eta zergatik?
- Zeinetan zentratu beharko litzateke mugimendu feministaren estrategia?

3. MINTEGIETAN ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA

- Francés Lecumberri, Paz eta Diana Restrepo Rodríguez (2019). “El camino hacia lugares más justos: al encuentro de la abolición”. *¿Se puede terminar con la prisión? Críticas y alternativas al sistema de justicia penal*. Madrid: Catarata, 174-210 orr.
- Francés Lecumberri, Paz eta Diana Restrepo Rodríguez (2016). “Rasgos comunes entre el poder punitivo y el poder patriarcal”. *Rev. colomb. soc.*, 39(1), 21-46 orr.
- Mladjenović, Lepa (2011). “Sanar es justicia: ‘Yo soy voz de la memoria y cuerpo de la libertad, ¡Presente!’”. *La Historia del Segundo*

Festival para la Memoria de las Mujeres Sobrevivientes de Violación Sexual durante el Conflicto Armado”. Guatemala: Chimaltenango, 2011ko otsailaren 24-28.

- Segato, Rita (2013). “Informe de Experta”. Non: Mugarik Gabe. *Tribunal Internacional de Derechos de las mujeres*. Viena+20. Bilbo.
- Vega, Cristina (2019). “Reflexiones sobre impunidad, punitivismo y justicia en los feminismos en movimiento”. *Sin Permiso*, 12/01/2019. Jasotzeko lotura: <http://www.sinpermiso.info/textos/reflexiones-sobre-impunidad-punitivismo-y-justicia-en-los-feminismos-en-movimiento>.